



# NOBILLADAK 2015

## Novilladas 2015



Ohikoa den legez eta Deba herriak zezen tradizio handia duenez, jaletarako programan pikadorerik gabeko bi nobillada antolatu ziren, eta abuztuaren 16 eta 17an egin ziren horretarako prestatu zen zezen-plazan. Plaza inoiz baino errektangularragoa dago orain; izan ere, 2014an, aldatzen hasi ziren, Lersundi eta Iturkale lotzen dituen eguzki-tendidua aldatu zuten eta, 2015ean, berriz, itzal-tendidua. Segurtasuna nabarmen hobetu da eta ikusleak erosoago iristen dira beren lekuetara; baina, ondorio txarrak ere ekarri dituzte aldaketek: plaza txikitu egin da eta toreatzaile eta banderilleroen lanean eta zezenen portaeran eragina du, toriletarako eta entzierroko aterantz zuzentzeko joera ez ezik, barreretarako joera areagotuko zaie.

Bi nobilladetarako zezen-aholkularia **Luis Mari Pastor** izan zen, albaitaritz lanak **Isidro Aristik** egin zituen eta alguaziltxo lanak, berriz, **Oscar Vitoriak**.

*Como es habitual y como corresponde a un pueblo que como Deba tiene una gran tradición taurina, dentro del programa de fiestas se organizaron dos novilladas sin picadores que tuvieron lugar los días 16 y 18 de agosto en la plaza de toros montada al efecto, y que ahora es más rectangular que nunca. Y es que tras las modificaciones que se iniciaron el año 2014 y que afectaron al tendido de sol que une Lersundi con Iturkale, el año 2015 tuvieron su continuidad en el tendido de sombra. Es evidente que ha mejorado la seguridad y que ha hecho más cómodo el acceso de los espectadores a las localidades, pero lo cierto es que también ha tenido efectos negativos, ya que se han reducido las dimensiones de la plaza con los consiguientes consecuencias para los novilleros y banderilleros y para el comportamiento de los novillos que, además de las querencias naturales a la puerta de toriles o a la de la entrada del encierro, acentuarán su querencia hacia las tablas.*

*El asesor taurino de ambas novilladas fue **Luis Mari Pastor** y a **Isidro Aristi** le correspondieron las tareas de asesor veterinario. **Oscar Vitoria** actuó como alguacilillo de plaza.*

### Abuztuaren 16an egin zen nobillada

Herriko zaindariaren egunean egin zen nobilladan, *txartelik* ez dago kartela ipini zen eta plazak giro bikaina eta itxura aparta zituen. Jende asko egon zen plaza aldera ematen duten etxeetako balkoietan. Lainotuta egon bazen ere, ateri eutsi zion nobillada osoan.

Aurkezpen-paseoan, minutu bateko isilunea egin zen **Jose Antonio Egaña "Txapasta"** zendu berriaren omenez, plazako megafonien bidez aurretik eta behar bezala iragarri moduan. Minutuko isilunearen amaieran, jendeak, zutik jarrita, txalo-zaparrada zirraragarria eskaini zuen. *Txapasta* Debako azken toreroa izan zen eta zezenen azken euskal pikadorea ere bai.

Nobilladaren buru **Javier Basurto "Mañas"** debar ezaguna izan zen, urte askoan plazako torilero aritutakoa. Ondo egin zuen bere lana, nahiz eta eskuzabal samarra izan hirugarren zezenkoan bigarren belarria eman zuelako.

Presidentearen balkoitik, **Pedro Bengoetxea** alkate estreinatuta berriak ez ezik **Lorenzo Fraile Martín** ganaduzaleak, **Asier Martín** plazako medikuak eta **Patxi Aizpitarte** Debako apaizak ere jarraitu zuten nobillada. Lorenzo Fraile bere emazte eta alaba birekin etorri zen Debara.

### Novillada celebrada el día 16 de agosto

En la novillada del día del patrón de la localidad se puso el cartel de *no hay billetes*, presentando la plaza un gran ambiente y un aspecto inmejorable. Mucha gente en los balcones de las casas que dan a la plaza. Aunque estuvo nublado no llovió en el transcurso del festejo.

Durante el paseillo, previa y oportunamente anunciado desde la megafonía de la plaza, se guardó un minuto de silencio como homenaje, tras su reciente fallecimiento, a **José Antonio Egaña "Txapasta"**, último torero de Deba, y también último picador de toros vasco, a cuya finalización el público, puesto en pie, respondió con un intenso y emotivo aplauso.

Presidió la novillada el popular debarra **Javier Basurto "Mañas"**, que fue torilero de la plaza durante muchos años. Realizó bien su tarea aunque quizás estuvo algo generoso en la concesión de la segunda oreja en el tercer novillo.

Además del estrenado alcalde **Pedro Bengoetxea**, siguieron el festejo desde el balcón presidencial de la Casa Consistorial el ganadero **Lorenzo Fraile Martín** que acudió a Deba acompañado de su esposa y de dos de sus hijas y el médico de la Plaza el Doctor **Asier Martín**. Se encontraba también el párroco de Deba **Patxi Aizpitarte**.



**Salamancako Ventana del Puerto**-ko lau zezenko toreatu ziren. Oro har, ondo aurkeztuak izan ziren laurak. Lehenengoa, *Tesorero* izenekoa, pixka bat adarapala zen eta baita feriako pisu gehien zuena ere, 265 kilo kanalean; marroi iluna zen; hiru urte bete berriak zituen abuztuan; korri asko eta ondo egin zuen; eta oso noblea zen eta oso ona toreatzailearentzat. Bigarrena, *Geniecito* izenekoa, beltza zen eta adar luzea zuen; baskulan, 217 kiloko pisua eman zuen; pixka bat mantsoa zen eta kasta handikoa; eta ibilaldi luzekoa zen eta burua asko makurtzen zuen, zituen bi adarretatik, zezenkoteak toreatzerakoan eskatzen zuen lekua ematen bazitzaion. Hirugarrena, *Pescadillo* izenekoa, beltza zen eta bigarrenengoaren antzekoa; eta 238 kilo eman zituen kanalean. Eta laugarrena, *Huracan* izenekoa, gorrixka zen; 237 kilo eman zituen kanalean; joko ona eman zuen, ahuldu bazen ere; eta erasoan, trakets samar aritu zen. Aurreneko hirurek txalo-zaparrada handiak jaso zituzten arrasteen.

Zale askok Ventana del Puerto-ko zezenkoen kastari eta jatorriari buruz galdetu zuten, burdin-marka horren historiala gogoratuko dugu. Ganadutegia 2000. urtean sortu zen, Puerto de San Lorenzo-ko 71 behi eta hazitarako bi zezenekin, hau da, jatorriz, Atanasio-Lisardorenak ziren ganaduekin. 2008an, dena kendu eta Loreto Charro-ri Aldeanueva-ko ganadua hartu zion, jatorriz El Pilar-ena zen ganadua. 2013an, Monte La Ermita izeneko ganadutegia erosi zuen, 120 buru guztira; haietatik, 80 behiak ziren, urtebeteko eta bi urtez beheko zekorrek, eta 4 hazitarako zezenak ziren, Domecq y Díez odolakoak (Jandilla eta El Torreón bidez) eta Aldeanuevan dituztenekin nahastu gabe gobernatzen zituzten. Beranduago, César Rincón-i 30 behi erosi zizkion. Gaur egun duten jatorria, beraz, da: Aldeanueva, Pilar-engandik datorrena (Domecq eta Díez) batetik, eta, Monte de La Ermita-ko ganadua erosi ostean, Domecq y Solís-ena (Jandilla eta El Torreón) bestetik. Debako nobilladan, aurreneko hiru zezenkoak Domecq y Solís-enak ziren eta Aldeanueva-koa zen.

**Alfonso Cadaval** urdin argiz eta urre kolorez jantzita irten zen, eta beste aldeko estokada (plazari buelta) eta zitzada sakona eta erdia baino gehiago (agurrak publikotik) eman zituen. **Adrien Salenc** arrosa eta urre kolorez jantzita irten zen, estokada handia orratzen erdian, aurretik estokada zeharkatu bat eta zain egon zen (belarri bat) eta estokada (bi belarri). Bizkarrean atera zuten.

Sevillako zezen-eskolakoa, **“Moranco” César Cadaval**-en semea da, eta aita Debara bere semearekin etorri zen eta nobillada udaletxeko balkoitik ikusi zuen. Nobilleroari berde samar zegoela nabaritu zitzaion. Lantzean, oso zezenko ederra izan zuen, pase lotu bat edo beste eman zuen, batez ere pase natural multzo eder bat, zezenkoak eman zion jokoaren azpitik ibili bazen ere. Zezenaren aurpegia bistatik galdu eta ondoriorik gabeko harrapaketa jasan zuen. Arratsaldeko hirugarrenko zezenkoak (bere sortako bigarrenak) toreatzeko asko zeukan. Gero eta hobeto egiteko jarrera ikusi zitzaion, gogo handiz eta faena plazaren erdian belauniko jarrita hasi zuen; baina, egia esan, ez zen zezenkoa ulertzeko gai izan behin ere eta ez zizkion hark eskatzen zizkion distantziak eman.



Alfonso Cadaval

Se lidiaron cuatro novillos de la **Ventana del Puerto** de Salamanca. Bien presentados en general, algo cornigacho el primero que fue el de mayor peso de la feria y que dio un peso de 265 kilos en canal. Tenía el novillo, un castaño de nombre “Tesorero”, tres años cumplidos el mes de agosto. Galopó mucho y bien, fue muy noble y muy bueno para el torero. El segundo, un negro de nombre “Geniecito” con bastante cara, dio en la báscula 217 kilos en canal. Mansito muy encastado, tuvo mucho recorrido y humillaba mucho por los dos pitones si se le daba el sitio que pedía el eral a la hora de torearlo. El tercero “Pescadillo”, también negro y de características similares al anterior, pesó 238 kilos en canal y el cuarto un colorado de nombre “Huracán” de 237 kilos en canal dio buen juego, aunque blandió un poco y fue algo tardó en las embestidas. Los tres primeros muy aplaudidos en el arrastre.

Como bastantes aficionados preguntaron por el encaste y procedencia de los novillos de la Ventana del Puerto, vamos a recordar el historial de este hierro. Esta ganadería se crea el año 2000, con 71 vacas y dos sementales del “Puerto de San Lorenzo”; es decir, procedencia Atanasio-Lisardo. El año 2008 se elimina todo y se incorporan reses de “Aldeanueva” adquiridas a Loreto Charro, procedencia “El Pilar”. El año 2013 adquiere la mayoría de la ganadería de Monte La Ermita, 120 cabezas repartidas en 80 vacas, más las eralas y añojas y 4 sementales, de sangre Domecq y Díez (vía Jandilla y El Torreón) que la llevan por separado de lo que tienen de “Aldeanueva”. Posteriormente, han adquirido 30 vacas de César Rincón. Su procedencia actual es por tanto: por un lado “Aldeanueva” procedente del Pilar (Domecq y Díez) y por otro lado Domecq y Solís (Jandilla y El Torreón) al comprar la ganadería de Monte de La Ermita. En la novillada de Deba los tres primeros novillos era de Domecq y Solís y el cuarto de “Aldeanueva”.

**Alfonso Cadaval**, de celeste y oro. Estocada contraria (vuelta al ruedo) y pinchazo hondo y más de media (saludos desde el tercio). **Adrien Salenc**, de rosa y oro. Gran estocada en el hoyo de las agujas después de otra atravesada en la que hizo guardia (una oreja) y estocada (dos orejas). Salió a hombros.

**Alfonso Cadaval**, de la escuela taurina de Sevilla, es hijo del **“Moranco” César Cadaval** que acudió a Deba con su hijo y presenció el encierro desde el balcón Consistorial. Al novillero se le vio un poco verde. Tuvo en suerte un gran primer novillo al que dio algún pase ligado, sobre todo una buena serie de naturales, aunque estuvo por debajo del juego de la res. Fue cogido sin importancia por perder la cara al novillo. En el tercero de la tarde, segundo de su lote, un novillo que tenía mucho que torear, estuvo en novillero y con mucha voluntad, iniciando la faena de rodillas en el centro de la plaza, pero lo cierto es que no entendió al novillo en ningún momento y no le dio las distancias que requería.



Zezenkoak harrapatu egin zuen hura hiltzera sartu zenean; kolpe bat hartu zuen eta, kolpearen ondorioz, barne ubeldu bat sortu zitzaion, zezenkoak zapaldu eta orkatila bihurritu zion, lehen mailako bihuradura izan zuen. Ez da berak eginiko lana zuritzeagatik, baina gauza bat esan beharra dago bere alde: kuadrillak ez zion batere lagundu. Toreatzen gaizki aritu ziren eta banderillak sartzen, okerrago; kapote-pase gehiegi eman zizkieten zezenkoei, denak kaltetarako.



Adrien Salenc

**Adrien Salenc** nobillero frantsesa, Nimes-ekoa, eta El Juli zezen-eskolakoa. Debara etorri zen 2015ean 25 nobilladetan toreatu eta gero, eta trebetasun eta etorkizun handiak ikusi zitzaizkion. Martxoan, *Arnedoko Zilarrezko Zapata* saria eman zioten eta, bezperan, hiru belarri irabazi zituen, bat goizez Baionako nobilladan eta beste bi arratsalde Amurriokoan. Aurreneko zezenkoak zailtasuna zuen, asko toreatu beharra zegoen. Oso ondo erabili zuen kapotea, El Juli eskolako nobilleroek erabiltzen duten moduan; aipatzekoak jaialdiko aurreneko zezenkoari egin zion kitea eta arratsaldeko bigarren zezenkoari egin zizkion beronikak harreran. Muletaren faena publikoari eskaini zion eta oso ondo ulertu zion zezenkoari, lekua emanez eta sendo toreatuz. Faena gero eta hobeto zihoan, gero eta maila handiagoa hartuz. Bi serie eskuinetik eta beste bi ezkerretik, sendotasunez eta sakontasunez. Muleta alberoan arrastaka ibili zuen eskuak asko jaitsez. Bigarren belarria galdu egin zuen, hiltzera sartzeko lehen saiakeran kale egin zuelako. Bere sortako bigarrenean, kapotearekin ordezkorekin kite bikainari erantzun zion, farola eta tafallera paseekin, eta ertain bikain batez errematatu zuen. Musika-bandari eskaini zion eta, zezenko trakets eta ahularen aurrean, publikoarentzat toreatu zuen eta serie onen bat lortu zuen bi adarretatik. Manoletinez eta estokada on batez amaitu zuen. Bi belarri moztu zituen. Kuadrilla oso ondo, bai zezenkoa toreatzen eta baita banderillekin ere.

**Alberto Blanco** Salamancako ordezeko toreroa tabako eta urre koloreez jantzita irten zen eta hark eginiko kiteak aipatu behar dira. Arratsaldeko hirugarrengo zezenkoarekin, hainbat beronika erori eman zituen eta laugarrengoarekin, berriz, txikuelina batzuk eskuak behe-behean zituela. Txalo zaparrada handia eskaini zioten. Salamancarra 2013an ere agertu zen Deban.

### Abuztuaren 18an egin zen nobillada

Jendez beteta tendiduak eta balkoiak. Berriro, txartelik ez dago kartela ipini zen, zaleek bi jaialdietan emandako erantzun bikainaren seinale. Eguzkiak ederki berotu zuen. **Usua Urbietta** izan zen nobilladako buru, bere lana ezin hobeto egin zuelarik.

Udaletxeko balkoian, hauek egon ziren: **Pedro Bengoetxea** alkatea; **Iñigo Cambronero** jaietako zinegotzia; **Aitor Uriarte** Eusko Jaurlearitzako Joko eta Ikuskizunen zuzendaria; **Lorenzo Fraile Martín** ganaduzalea, bere alabarekin; **Asier Martín** plazako medikua; **Miguel Telleria** Illunbe plazako presidentordea, plaza bereko zezen-aholkulariarekin; Cambó hiri senidetuko ordezkariak; eta **Begoña del Teso** El Diario Vasco-ko kazetaria.

Fue cogido al entrar a matar y sufrió un golpe que le causó una contusión interna, produciéndose un esguince de tobillo de primer grado al ser pisoteado por el novillo. Sin que sirva de justificación hay que decir en su descargo que su cuadrilla no le ayudó nada. Lidiaron muy mal y banderillearon peor, dando un exceso de capotazos a los novillos que no les beneficiaban en nada.

**Adrien Salenc**, novillero francés, de Nimes, de la escuela taurina de "El Juli", venía a Deba después de haber toreado más de 25 novilladas en 2015, demostrando mucho oficio y mucho futuro. En marzo había ganado el Zapato de Plata de Arnedo y la víspera cortó una oreja en la matinal de Bayona y tres en Amurrio en la novillada de la tarde. Su primer novillo tenía su guasilla y había que torearlo mucho. Jugó muy bien con el capote, muy al estilo de los novilleros de la escuela de "El Juli", destacando en el quite que hizo en el primer novillo del festejo y en las verónicas con las que saludó a este segundo novillo de la tarde. En la faena de muleta, que brindó al público, entendió perfectamente al novillo dándole sitio y toreado con mucho temple. La faena fue de menos a más cogiendo mucho vuelo. Dos series por la derecha y otras dos por la izquierda de mucho temple y profundidad. Arrastró la muleta por el albero bajando mucho las manos. Perdió la segunda oreja al fallar en su primer intento al entrar a matar. En el segundo de su lote con el capote replicó el buen quite del sobresaliente con faroles y tafalleras y rematando con una gran media. Brindó a la banda de música y, ante un eral tardo y algo flojo, hizo una faena para el público consiguiendo alguna serie buena por los dos pitones. Cerró con manolequinas y una buena estocada. Cortó las dos orejas. La cuadrilla muy bien tanto lidiando a los novillos como con los garapullos.

Destacar los quites realizados por el sobresaliente salmantino **Alberto Blanco**, de tabaco y oro, que ya había comparecido en Deba el año 2013. En el tercero de la tarde lo hizo con unas verónicas muy desmayadas y en el cuarto con unas chicuelinas de manos muy bajas. Fue muy ovacionado.

### Novillada celebrada el día 18

Lleno absoluto en tendidos y balcones. Otra vez cartel de no hay billetes confirmándose la gran respuesta de los aficionados en los dos festejos. Lució el sol. Presidió la novillada **Usua Urbietta** que cumplió perfectamente su labor.

En el balcón Consistorial se encontraban el alcalde **Pedro Bengoetxea**, el concejal de festejos **Iñigo Cambronero**, el Director de Juegos y Espectáculo del Gobierno Vasco **Aitor Uriarte**, el ganadero **Lorenzo Fraile Martín** acompañado de su hija, el médico de la Plaza **Asier Martín**, el vicepresidente de la Plaza de Illunbe Miguel Tellería acompañado del asesor taurino de dicha plaza, representantes de la ciudad hermanada de Cambó y la periodista del Diario Vasco **Begoña del Teso**.



Salamancako **Puerto de San Lorenzo** (Atanasio-Lisardo) ganadutegiko lau zezenko toreatu ziren. Laurak, ederki aurkeztuak, sataiko zezenkoak ziren, ganadutegiaren estiloak eta guztiak 2012ko irailean jaioak, hirugarren tokian toreatu zena izan ezik, hirugarrena urte bereko abenduan jaio zen. Zezenko bakoitzak bere jokoa eman zuen eta bere ezaugarriak zituen. Lehenengoa, "Burrenito" izenekoa, beltz-azpizuria zen, zezenko zaila, indar eta mugikortasun handikoa, 245 kilo pisatu zituen kanalean eta txalotua izan zen herrestan eramanean. Bigarrena, "Cardillisto" izenekoa, beltz-azpizuria eta zakilzuria zen, zezenko bikaina, askotan ahuldu bazen ere, eta 238 kilo eman zituen kanalean. Hirugarrena, "Campanero" izenekoa, beltz-azpizuria zen, 262 kilo eman zituen kanalean, zezenko ona ezker adarretik, baina ibilbide motzekoa, eta arrisksua eskuinekotik, txalotua izan zen, baita ere herrestan eramanean. Arratsaldeko laugarrena, "Cubatisto" izenekoa, beltza zen, baskulan 230 kilo eman zituen, ibilbide motzekoa zen bi adarretatik eta burua goian zuela ateratzen zen eraso bakoitzean.

**Jaime Rodríguez**, El Espinar-ekoa (Segovia), karmin eta urre kolorez jantzita irten zen, estokada bikaina eman zuen, bi ziztaden ostean (agurrak plaza bazterretik) eta estokada goi-goian (pisu handiko belarria). **Antonio Hernandez**, Salamancako eskolakoa, ia ertain bat eman zuen eta nahikoa (agurrak plaza bazterretik), hiru ziztada eta estokada ezpata agerian geratuz (abisua eta isiltasuna).

**Jaime Rodríguez**-en aitabitxia Galdakaoko **Andoni Reka-gorri** ganaduzalea da. Ganaduzaleak lan handia egin du betzua (euskal zezena) biziraun dezan. Ganadutegia eratzeko, behiak eta hazitarako zezenak erosi zizkion Valdefresno-ko **Nicolas Fraile Martín**-i. Toreroak bere sortako lehenengoa publikoari eskaini zion; ondo erabili zuen kapotea, muletarekin zezenketa segurua eta kalitatezkoa erakutsi zuen, hainbat serie sakon egin zituen bata bestearen atzetik

bi adarretan. Bigarrego zezenkoa publikoko zale bati eskaini zion, hala moduz aritu zen kapotearekin eta muletarekin berehala entenditu zion aurrean zuen zezenkoari. Zezenkoa bi urtez azpikoa zen eta ezkerreko adarra beldurgarria zeukan, suhartasunez erasotzen zuen ezkerreko adarretik, burua asko makurtzen zuen, baina ia ezinezkoa zen eskuineko adarretik. la faena osoa ezkerreko adarretik egin zuen, serie natural oso interesgarriak eginez; eskua jaitsiz zezenkoa bide luzean eramaten zuen, eta, batez ere, oso ondo kokatuta aritu zen. Faena amaitzeko, hankak juntu jarri eta aurrez aurreko pase naturalak egin zituen; publikoari asko gustatu zitzaizkion. Zezenkoak harrapatu egin zuen, ikusgarria izan zen, baina ez zitzaion ezer gertatu. Estokada bikain batez hil zuen zezenkoa eta belarri bat eman zioten, pisu handiko belarria. Publikoaren zati batek bigarren belarria eskatu zuen; bigarren saria ematea presidentearen esku dagoen zerbait da, ordea, eta ez ematea erabaki zuen, erabaki ona izan zen. Erizaintzan artatu zuten Manuel Macias mendeko bikaina; izan ere, zezenkoak adarrarekin kolpatu zuen ezkutalekuan zegoela eta hankan golpe handia eman zion.



Se lidiaron cuatro novillos de la ganadería salmantina del **Puerto de San Lorenzo** (Atanasio-Lisardo), magníficamente presentados, con trapío y en el tipo de la ganadería, todos nacidos en septiembre del 2012, excepto el lidiado en tercer lugar que nació en diciembre del mismo año. De diferente juego y condición. El primero "Burrenito" negro bragado, fue un novillo complicado con mucho motor y movilidad, pesó 245 kilos en canal y fue aplaudido en el arrastre. El segundo "Cardillisto" negro bragado y meano, un buen novillo pero que blandió en exceso, tuvo un peso de 238 kilos en canal. El tercero "Campanero", negro bragado con 262 kilos de peso en canal, un buen novillo por el pitón izquierdo pero con muy poco recorrido y bastante peligro por el derecho, también aplaudido en el arrastre. El cuarto de la tarde "Cubatisto", negro y que dio en la báscula 230 kilos en canal tuvo poco recorrido por los dos pitones y salía con la cabeza alta en cada embestida.

**Jaime Rodríguez** de El Espinar (Segovia), de carmín y oro, gran estocada, tras dos pinchazos (saludos desde el tercio) y estocada en todo lo alto (una oreja de mucho peso). **Antonio Hernández** de la escuela de Salamanca, casi media que fue suficiente (saludo desde el tercio) y tres pinchazos, estocada que hace guardia y estocada (silencio tras aviso).

**Jaime Rodríguez** está apadrinado por el ganadero de Galdakao **Andoni Reka-gorri** que ha jugado un papel importante en la conservación del betizu, el toro vasco. Creó la ganadería comprando vacas y sementales de Valdefresno a **Nicolás Fraile Martín**. En el primero de su lote, que brindó al público, manejó bien el capote y con la muleta demostró una tauromaquia solvente, no exenta

de calidad, dando varias series ligadas y profundas por ambos pitones. En su segundo, que brindó a un aficionado del tendido, estuvo regular con el capote y con la muleta entendió pronto al novillo que tenía enfrente. Un eral con un pitón izquierdo extraordinario por el que embestía con bravura y humillando mucho pero que era casi imposible por el pitón derecho. Realizó casi toda su faena por el pitón izquierdo logrando series de naturales muy interesantes, bajando la mano llevando al novillo muy largo y, sobre todo, estando siempre muy bien colocado. Finalizó su actuación con pases naturales de frente con los pies juntos que llegaron mucho al público. Sufrió una aparatosa cogida sin consecuencias. Mató de una buena estocada y le fue concedida una oreja de mucho peso. Parte del público pidió la segunda oreja, pero la concesión del segundo trofeo es potestad exclusiva de la presidencia que, con buen criterio, no lo estimó oportuno. Fue atendido en la enfermería el buen subalterno Manuel Macias que sufrió un varetazo del novillo estando dentro del burladero que le produjo una contusión en la pierna.



**Antonio Hernandez**, San Muñoz-ekoa (Salamanca), 2014an toreatu zuen Deban eta ibilbide arrakastatsu batetik etorri bazen ere (2013ko zezeneskolen topaketa eta 2014ko Ciudad Rodrigo-ko saria irabazi zituen), huts egin zuen. Arantza atera nahi izan zuen, baina ez zuen aprobetxatu eman zitzaion aukera; oso faena kaskarra egin zuen eta ez zuen inolako hobekuntzarik erakutsi aurreko urtean erakutsi zigunarekin alderatuz. Egia da ez zuela



zortzerik izan zozketan, zezenko-sortarik txarrena egokitu zitzaiohalako, baina oso berde agertu zen. Faena kaskarra: zezenko-sortako lehenengoa ahula atera zitzaion eta arratsaldean egin zuen gauzarik hobereana kapotearekin egin zuen, ia estokada erdiz hil zuen zezenkoa, nahikoa suertatu zitzaion eta publikoa agurtu zuen; arratsaldeko laugarrenean, isiltasuna, borondate gehixeago jarri zuen, baina hala moduz ibili zen bai kapotearekin bai muletarekin; zezenkoari, hil aurretik, hiru zitzada eta bi estokada eman zizkion, ezpata agerian geratu bata eta gurutzearen erdian bestea. Eman zituen pase apurrak ikusita, publikoak jakinarazi zion bazekiela oso ondo bereizten zezen bati paseak ematea eta behar den bezala noiz toreatzea.

**Alberto Blanco** ordezkoak kiteak egin zituen hirugarren eta laugarren zezenkoekin. Lehenengoa kite ona izan zen; bigarrena, ordea, kaskar samarra. Publikoak txalo-zaparrada handi batez eta lausengatuz agurtu zuen, bi nobilladetan eginiko lanagatik.

**Ez dago sarrerarik. No hay entradas.** Hori zen Debako zezen-plazan 2014 eta 2015ean egon zen ohiko kartela. Horrek garbi uzten du zezenek Debako jaietan dituzten erroak eta debarrek zezenekiko duten onespina. Horren adierazle dira ospatzen diren hainbat eta hainbat zezen-jaialdi: plazan arratsaldez toreatzen diren puntadun zezenkoekin egiten diren entzierroak; marinelen egunean edo debarren egunean bigantxeekin egiten diren jaialdiak, errekortadoreen jaialdiak, sokamuturra, zezenak, umeentzako entzierroak edo bigantxak plazan libre botatzen diren jaialdiak. Tradizioa bai... baina ez hori bakarrik. Izan ere, ezin daiteke tradizioa argudio moduan erabili ezerezegandik ezkutatzeko. Badira beste gauza batzuk, askotan argitu beharrik ez daudenak. Hor daude eta kito.

San Roke egunean, **Adrien Salenc** nobillero frantsesak plazan eskuratu zuen bizkar gainean ateratzeko eskubidea, baina ez zegoen inor hura hala aterako zuenik, eta haren menpekoetako batek atera zuen. Torero izan nahi dutenentzat oso garrantzitsua da Deba bezalako plaza batetik bizkar gainean ateratzea eta, horregatik, antolatzaileek prest eduki behar dute norbait halako eskubidea irabazi duen nobilleroa bizkar gainean ateratzeko.

**Antonio Hernández** de San Muñoz (Salamanca), había toreado en Deba el año 2014 y, a pesar de venir con importantes credenciales como la de haber ganado el encuentro de escuelas taurinas del año 2013 y el bolsín de Ciudad Rodrigo del año 2014, decepcionó. Quería sacarse la espina pero, en esta nueva comparecencia, no aprovechó la oportunidad que se le brindó. Muy al contrario, tuvo una actuación muy pobre y no exhibió ninguna me-

joría respecto a lo que nos mostró el año anterior. Es cierto que no tuvo suerte en el sorteo porque se llevó el peor lote, pero se le vio muy verde. Tras una discreta actuación con el flojo primero de su lote, donde lo mejor de la tarde lo hizo con el capote, mató de casi media estocada que bastó y saludó desde el tercio. En el cuarto de la tarde se silenció su actuación. Puso algo más de voluntad pero estuvo regular tanto con el capote como con la muleta. Mató después de tres pinchazos, una estocada que hizo guardia y una estocada en el hoyo de las agujas. En los pocos pases que dio, el público de la plaza le hizo saber que distingue perfectamente la diferencia que hay entre dar pases a un toro o torearlo como mandan los cánones.

El sobresaliente **Alberto Blanco** realizó quites en el tercer y cuarto novillo. El primero fue un buen quite, pero el que dio en segundo lugar fue muy discreto. El público le despidió con una gran ovación y agasajos varios como premio a su actuación en las dos novilladas.

**Ez dago Sarrerarik. No hay entradas.** Este es el denominador común de las novilladas celebradas los años 2014 y 2015 en la Plaza de Toros de Deba. Es la constatación del arraigo de los toros en las fiestas de Deba y del beneplácito de los debarras. Lo acredita la variedad de festejos taurinos que se celebran: los encierros con novillos en punta que se lidian por la tarde en la plaza, los que se corren con vaquillas el día del marinero o el día debarra, los recortadores, la sokamuturra, toros y encierros para niños o la suelta de vaquillas en la plaza. Tradición sí... pero no sólo eso. Porque la tradición no es suficiente para explicar esto. Y además, la tradición no puede utilizarse como argumento para escudarse de nada. Hay otras cosas que muchas veces no necesitan ser explicadas. Están ahí y punto.

El día de San Roque, el novillero francés **Adrien Salenc** se ganó en la plaza el derecho a salir a hombros y no había nadie para hacerlo siendo llevado por uno de sus subalternos. Para estos aspirantes a toreros es muy importante salir a hombros de una plaza como la de Deba, por eso la organización debe tener resuelto que haya alguna persona para sacar a hombros al novillero que se haya ganado ese derecho.

